

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

40/2019 Mozioa, azaroaren 13koa, Santa María de Garoñako zentral nuklearraren eraispen prozesua abiarazteko eta hilerri nuklearra ez bilakatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko azaroaren 13an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

40/2019 Mozioa, azaroaren 13koa, Santa María de Garoñako zentral nuklearraren eraispen prozesua abiarazteko eta hilerri nuklearra ez bilakatzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek erakunde eskudunei eta Erakunde arteko Batzordeari eskatzen diete behar diren izapideak eta jarduerak ahalik eta azkarren bultza ditzatela, Santa María de Garoñako Zentral nuklearraren eraispena burutzeko.

2. Arabako Batzar Nagusiek erakunde eskudunei eta Erakunde arteko Batzordeari eskatzen diete lan egin dezatela bermatzeko Santa María de Garoñako zentral nuklearra ez dela hilerri nuklearra bihurtuko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen diete Santa María de Garoñako zentral nuklearraren eraispen-prozesua hurbil-hurbiletik jarraitu eta zaindu dezatela, Erakunde arteko Batzordearen bidez, eta eraispen horren garapena eta betearazpena burutzeko egiten diren urratsen berri eman dezatela.

4. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute eragin den eskualderako trantsizio-plan bidezkoa eta ekologikoa eta eskualde horren susperraldi sozioekonomikoa jasoko duena babestuko dutela; plan horretan Santa María de Garoñako zentral nuklearraren inguruko Arabako udalerrriak jaso beharko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 13a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA